16

# Zer erakutsi, hori irakatsi

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

© Vitoria-Gasteizko Udala
Testua: EMAIZE Sexologia Zentroa
Marrazkiak eta diseinua: Angel Mª Remírez de Ganuza

emaize


JAKA ERANZTEN BADUGU, IKUSTALDI GEHIAGO IZANGO DITUGU. ETA ZUK, HUGO, ERANTZI KAMISETA, ETA ERAKUTSI EZAZU TXOKOLATE-TABLETA PUSKA HORI.
ADOS.
ZERTAN ZABILTZATE HAIN ARROPA GUTXI JANTZITA? KRISTON HOTZA EGITEN DU ETA!
BADAKIZUE: TIKTOKEN ARRAKASTA IZATEKO, "HARAGIA ERAKUTSI" BEHARRA DAGO...
AH BAI? HAIN GARRANTZITSUA AL DA "LIKE" BAT IRABAZTEA? HORRETARAKO EDOZER EGITEKO PREST?
TIRA, ONDO PASATZEKO ERE EGITEN DUGU... BAINA INORK IKUSTEN EZ BADU, BATERE GRAZIARIK EZ!
GIMNASIOREN EMAITZA ERAKUSTEN DUDANETIK NESKA PILO BAT DAUKAT ATZETIK... BAITA MUTILAK ERE.
BADIRA PETATZEKO BESTE MODU BATZUK. JOAN DEN EGUNEAN TRISTE ANTZERA NENGOEN, ETA ZUZENEKO BAT EGIN NUEN, GOGORATZEN DUZUE? BADA, LAGUN PILO BAT HASI ZITZAIZKIDAN JARRAITZEN, ETA IKUSTALDI MORDO BAT ERE LORTU NUEN.
ETA HORREK HOBETO SENTIARAZI ZINTUEN?










ZERTARAKO IGOTZEN DITUGU BIDEOAK SAREETARA?

ZURE USTEA BA AL DA, ORO HAR, ALDERIK MUTILEN ETA NESKEN BIDEOEN ARTEAN? ZEINTZUK?

ZURE USTEAN, ZER ONDORIO IZAN DITZAKETE NORK BERE GORPUTZA ERAKUSTEAK ETA DANTZA SENTSUALETAN ARITZEAK? ETA SENTIMENDUAK ERAKUSTEAK?

16

# ¿Qué enseñamos cuado enseñamos?

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

© Vitoria-Gasteizko Udala

Testua: EMAIZE Sexologia Zentroa
Marrazkiak eta diseinua: Angel Mª Remírez de Ganuza

emaize


SI NOS QUITAMOS LA CHAQUETA, TENDREMOS MÁS VISUALIZACIONES. Y TÚ, HUGO, PUEDES QUITARTE LA CAMISETA Y ENSEÑAR ESA TABLETA.
DE ACUERDO.
¿QUÉ HACÉIS CON TAN POCA ROPA, CON EL FRÍO QUE HACE?
YA SABES, PARA TRIUNFAR EN TIKTOK, HAY QUE "ENSEÑAR CARNE".
¿QUÉ PASA? ¿QUÉ HAY QUE HACER CUALQUIER COSA POR UN LIKE?
TAMBIÉN LO HACEMOS PARA PASÁRNOSLO BIEN, PERO SI NO LO VE NADIE, NO TIENE GRACIA.
DESDE QUE VOY AL GIMNASIO, Y ENSEÑO LOS RESULTADOS ME SIGUEN MOGOLLÓN DE CHICAS Y TAMBIÉN CHICOS.
HAY MÁS MANERAS DE PETARLO. ¿OS ACORDÁIS CUANDO EL OTRO DÍA ESTABA DE BAJÓN E HICE UN DIRECTO? HUBO UN MONTÓN DE GENTE QUE EMPEZÓ A SEGUIRME DESDE ENTONCES Y TAMBIÉN UN MONTÓN DE VISUALIZACIONES.
¿Y ESO HIZO QUE TE SINTIERAS MEJOR?










¿PARA QUÉ SUBIMOS VIDEOS A LAS REDES?

EN GENERAL, ¿CREES QUE HAY DIFERENCIAS ENTRE LOS VIDEOS DE LOS CHICOS Y LOS DE LAS CHICAS? ¿CUÁLES?

¿QUÉ CONSECUENCIAS CREES QUE PUEDE TENER LA EXPOSICIÓN CORPORAL Y LOS BAILES SENSUALES? ¿Y LA EXPOSICIÓN DE SENTIMIENTOS?

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

## GAIAK

"Ikusizko" sare sozialak.
Extimitatea.
Mutil eta nesken arteko aldeak sare sozialetan aritzean, eta alde horien arrazoiak.
Ikusizko sare sozialen erabilera desegokiaren faktoreak.
Nork bere gorputza nahiz erotika sareetan erakusteak izan ditzakeen ondorioak.

## TEMAS

Redes sociales "visuales".
Extimidad.
Usos diferenciados de las redes entre chicas y chicos.
Factores en el uso inadecuado de las redes sociales visuales.
Posibles consecuencias de la exposición corporal-erótica y emocional en las redes.

## HELBURUAK

- Sare sozialetan aritzean neska- eta mutilen jokabide desberdinak aztertzea, bai eta alde horien arrazoiak ere.
- Sareen modu negatiboan erabiltzean eragin dezaketen faktoreak aztertzea, esaterako autoestimu baxua, gizarte-trebetasunik eza edo beste talde batzuetan kidetasun-maila eskasa izatea.
- Sareetan norbere gorputza-erotika nahiz sentimenduak neurriz gain erakustearen ondorioei buruz era kritikoan hausnartzea.

## OBJETIVOS

- Analizar los distintos usos de las redes sociales que tienen chicas y chicos y sus posibles causas.
- Analizar los posibles factores en un uso negativo de las redes, como pueden ser la baja autoestima, la falta de habilidades sociales o el bajo nivel de pertenencia a otros grupos.
- Reflexionar de manera crítica sobre las consecuencias de la sobreexposición en las redes, tanto de la corporal-erótica, como de la emocional.

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

## SARRERA

Badira hiru hamarkada pasatxo teknologia digitala iritsi zela biztanle gehienen eguneroko bizitzara. Denbora tarte honetan guztian, teknologia digitalak aldaketa handiak ekarri ditu bizitzaren alderdi askotan, nola alderdi pertsonal eta intimoetan, hala publiko eta sozialetan. Garapen teknologiko horrek eragin handia izan du bizitzaren alderdi ugaritan, esaterako komunikazioan, entretenimenduan, informazioa eskuratzeko eta, elkarrekin harremanetan jartzeko moduetan, baita norbere nortasuna eraikitzeko moduetan ere.

Aldaketa horietako asko sare sozialen online aplikazioen agerpenaren eta hazkundearen ondorioz gertatu dira eta eurekin ekarri dituzte sozializazio-espazio eta bertan aritzeko arau berriak, baita espazio analogikoen aldean bestelakoak diren kodeak ere. Hala ere, sareak, batez ere, gizartearen presio elementu bihurtu dira, hain presio handiko, non berdinen taldeak berak baino gehiago eragin baitezakete. Pertsona askorentzat, online bidezko sare sozialak euren buruari begiratzeko ispilu dira, eta, batez ere, beste batzuekin konparatzeko ispilu. Gazteen nortasun-faktore tradizionalei (janzteko modua, tribu urbano jakin bateko kide izatea, musika mota jakin bat entzutea, esterako), eraikuntza-faktore berriak gehitu zaizkie, hala nola etengabe autobehaketan eta konparatzen egon beharra; horrek guztiak izaera digitaleko identitate-dimentsio berri bat sorrarazi du.
Nor naiz ni sare sozialetan?, Zer leku daukat halakoetan? Holako galderak autoestimuan eragin zuzena duten faktoreak dira, batez ere nerabe eta gazteengan. Sareetan zenbat jarraitzaile ditugun,

## INTRODUCCIÓN

Hace algo más de tres décadas que la tecnología digital llegó a la vida cotidiana de la mayor parte de la población. En todo este tiempo esta tecnología ha conllevado consigo grandes cambios en muchos aspectos de la vida, tanto en los personales e íntimos como en los públicos y sociales. La comunicación, el acceso a la información, el entretenimiento, las formas de relacionarnos e incluso el cómo construimos nuestra identidad, se han visto profundamente afectados por este desarrollo tecnológico.

Muchos de estos cambios se han producido a consecuencia de la aparición y crecimiento de las redes sociales (RRSS) online, que han supuesto nuevos espacios de socialización, con nuevas reglas y con códigos distintos a los que se dan en los espacios analógicos. Pero, sobre todo, las redes se han convertido en un gran elemento de presión social, con una influencia mayor de la que puede tener incluso el grupo de iguales. Para muchas personas, las RRSS online son el espejo en que mirarse y sobre todo en donde compararse. A los tradicionales factores identitarios juveniles, como pueden ser la forma de vestir, la pertenencia a distintas tribus urbanas o la música que escuchamos, se han unido nuevos factores de construcción, como la constante auto-observación y comparación, dando lugar a una nueva dimensión identitaria de carácter digital.

Quién soy en las redes sociales o qué lugar ocupo en ellas son factores que influyen directamente en la autoestima, especialmente en adolescentes y jóvenes. El número de cuentas que nos siguen en las redes y el

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

gure argitalpenek zenbat "like" lortzen dituzten... Horiek guztiek eragin zuzena dute norberaren autoirudian.

## Extimitatea

Alderdi kuantitatiboan oinarritutako etengabeko autobalorazio horrekin batera, nolabaiteko aldaketa gertatu da intimoa edo publikoa denaren artean, extimitatea, alegia. Orain arteko paradigma nagusian (intimititearen paradigmak) babestu egiten bazen arlo pribatua bere balioagatik; extimitatearen paradigmak, aldiz, balio erantsia eman dio arlo pribatuari publiko bihurtzen denean.

Extimitate-nahia exhibizionismo hutsa irudi lezakeenetik harago doa. Extimitatea autoestimu kaltetuak konpontzeko saioa da: bizitzaren alderdi intimoak azaleratzen dira, onespen edo enpatiaren bila eta, batez ere, harreman sozialen bila. Hein handi batean, extimitate-grina dago sareetan norbere intimitatea neurriz gain agertzearen atzean.

## Sareen bilakaera

Sare sozialen bilakaerak berak bultzatu du ni-a gero eta gehiago agerrarazteko prozesua. Lehen sare sozialetan norberaren agerpena mugatuagoa zen, hitz idatzia baitzen komunikazio-tresna. Hala gertatzen zen Facebook edo Twitter sareetan, esaterako. 2010ean Instagram sortzearekin batera, gauzak aldatu egin ziren. Instagram eta beste sare batzuek (Pinterest da adibide bat) bigarren mailara eraman zuten hitz idatzia, eta erabateko protagonismoa eman zioten irudiari.

número de "likes" que obtienen nuestras publicaciones influyen directamente en la autoimagen.

## Extimidad

Junto a esta autovaloración constante basada en lo cuantitativo, también se ha producido un cambio en lo que se considera íntimo y público: la extimidad. Si en el antiguo paradigma de lo íntimo, lo privado se protegía por su valor, la extimidad ha supuesto que lo privado tenga un valor añadido al hacerse público.

Los deseos de extimidad van más allá de lo que podría parecer puro exhibicionismo. Se busca reparar autoestimas dañadas: se desvelan aspectos íntimos de la vida en un intento de buscar la aprobación o la empatía y sobre todo de establecer vínculos sociales. Este deseo de extimidad está detrás de gran parte de la sobreexposición de la intimidad en las redes.

## Evolución de las redes

La propia evolución de las redes sociales ha contribuido al aumento de la exposición del yo. En las primeras RRSS la exposición era menor, al ser la palabra escrita su herramienta comunicativa. Esto sucedía en redes como Facebook o Twitter. En 2010 surge Instagram y las cosas cambian. Con la llegada de ésta y otras redes como Pinterest, la palabra escrita es relegada a un segundo plano y cobra todo el protagonismo la imagen.

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

Hartara, jendea bere irudia erakusten hasi zen, eta irudi hori komunikazio-tresna nagusi bihurtu zen: aurrerantzean, sareetan arrakasta izateko, ez da nahikoa umorea edo buru-azkarra izatea, orain, ˝selfie˝ak dira protagonista.

Hala eta guzti ere, NI-aren agerpen publikoaren jauzi itzela 2016an izan zen, TikTok agertu zenean; Txinako sare horrek joko-arauak hautsi zituen erabat. TikTok sareak bideo laburrak konpartitzen ditu, zeinetan, arrakasta lortzeko, dantzan edo bestelako interpretazioren batean trebetasuna erakutsi behar baita. TikToken ez da nahikoa buru azkarra eta erakargarritasun fisikoa izatea; horrez gain, trebetasuna erakutsi behar da dantzan, interpretazioan, koreografietan eta abarretan.

## Neurriz gaindiko agerpena (gainesposizio mediatikoa)

Sareetan neurriz gaindi agertzeaz ari garenean, ia beti gogora datorkigu gorputza eta erotika neurriz gain erakustea. Hala ere, alde emozionala neurriz gain erakusteak ere ondorio larriak izan ditzake. Kendall Jenner modeloak kontu oso pertsonalak konpartitu zituen Instagramen bidez aknearekin izan zituen gorabeherak zirela eta; horren ondorioz, 24 urteko modeloa sadfishing egiteaz akusatu zuten askok. Ingelesezko termino hori Rebecca Reid-ek sortu zuen 2019. urte hasieran eta honela definitzen du:, Interneten arazo eta gorabehera emozionalak argitaratzeko egintza , internauten artean errukia piztu edo arreta erakartzea helburua.

Así, las personas comienzan a exponer su propia imagen, convirtiéndose ésta en la principal herramienta comunicativa: para triunfar en las redes ya no será suficiente el ingenio o el humor, ahora los ˝selfies˝ son protagonistas.

Sin embargo, el gran salto hacia la exposición del YO llega en 2016, con la aparición de TikTok, una red china que cambia las reglas del juego. En ella se comparten vídeos cortos, en donde para triunfar hay que hacer alarde de destrezas interpretativas o de baile. En TikTok no basta con tener ingenio y atractivo físico, además hay que saber bailar, interpretar, realizar coreografías, etc.

## La sobreexposición

Cuando hablamos de sobreexposición en las redes, casi siempre pensamos en la relacionada con el cuerpo y la erótica. Sin embargo, la exposición emocional puede tener consecuencias igualmente graves. Cuando la modelo Kendall Jenner compartió comentarios muy personales en Instagram sobre sus experiencias en torno al acné, la modelo de 24 años fue acusada por muchos de "sadfishing". Este término inglés fue acuñado a comienzos de 2019 por Rebecca Reid, que lo define como la acción de publicar problemas emocionales en internet con el objetivo de despertar compasión o la atención de la comunidad internauta.

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

*Sadfishing* fenomenoa gazteen artean erruz zabaldu bada ere, nabarmenagoa da nesken artean; izan ere, neskek erabiltzen dituzte sareak mutil gehienek ez bezala. **Genero-arrakala digitalari** buruzko ikerketek berresten dute alde nabarmenak daudela batzuen eta besteen Internet erabilerari dagokionez[1].

Hala, **kontsumitzen dituzten edukiei dagokienez**, emakumeek interes handiagoa dute kultura- edo hezkuntza-edukiekin, eta gehiago baliatzen dituzte sareak lagunekin komunikatzeko; gizonek, berriz, nahiago dituzte aisialdiarekin eta denbora librearekin lotutako edukiak (jokoak, kirola eta informatika), eta gutxiago komentatzen dituzte beste kontu batzuetan argitaratzen direnak.

Horrenbestez, esan dezakegu sareek genero-estereotipo jakin batzuk iraunarazten laguntzen dutela, horra, esaterako, influencer delakoen fenomenoa: horietako neska askok modaz, edertasunaz edo osasunaz hitz egiten duten bitartean, mutilek bideojokoez dihardute, edo txantxetan ematen dute denbora. Neskek zein politak diren erakusten dute (horra, adibidez, Lucia Bellido, Lola Lolita...) eta mutilek, berriz, gihar sendoak erakusten dituzte (Sieteex, Victor Pérez...).

Garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea, eragin handiena dutenen joera orokorra hori bada ere, patriarkatuaren aginduak modu kritikoan zalantzan jartzen dituzten gazteen adibide oso interesgarriak ere badaudela, hala nola zientziaz hitz egiten duten neskena (Rocío Vidal -La Gata de Schrödinger- edo

Aunque este fenómeno se ha expandido entre la juventud en general, es más acentuado en las chicas, quienes hacen un uso de las redes distinto del que suelen hacer la mayoría de los chicos. Los distintos estudios sobre la **brecha digital de género** confirman la existencia de diferencias significativas en los usos de Internet por parte de unas y otros[1].

Así, en cuanto a los **contenidos que se consumen**, ellas muestran mayor interés por contenidos culturales o educativos y suelen usar en mayor medida las redes para comunicarse con sus amistades; ellos prefieren contenidos relacionados con el ocio y el tiempo libre (juegos, deporte e informática) y suelen comentar menos las publicaciones de otras cuentas.

Así, podemos decir que las redes contribuyen a perpetuar determinados estereotipos de género, fenómeno observable en las y los influencers: mientras que muchas de ellas hablan de moda, belleza o salud, ellos suelen hablar de videojuegos o se dedican a hacer bromas. Ellas muestran su belleza (como Lucía Bellido, Lola Lolita...) y ellos alardean de su fuerza y enseñan músculo (Sieteex, Victor Pérez...).

Creemos importante destacar que, aunque ésta sea la tendencia general de quienes mayor "influencia" ejercen, también hay ejemplos muy interesantes de jóvenes que de manera crítica ponen en cuestión los mandatos del patriarcado, como chicas hablando de ciencia (las youtubers Rocío Vidal -La Gata de

1. https://www.researchgate.net/publication/317024119_Diferencias_de_sexo_en_el_uso_de_internet_en_adolescentes_espanoles/link/5afb4993458515c00b6e45f4/download **(gaztelaniaz)**

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

Sandra Ortonobes -La Hiperactina-), edo beren pribilegio patriarkalak errefusatuz maskulinitateak eraikitzen dituzten mutilena. (Luc Loren, De machos a hombres, Ulises Figueroa...).

## Sare sozialen erabilera eta ondoeza

Sare sozialen erabilera desegokien harira, bada zantzurik zenbait ondoez psikiko teknologia digitalaren erabilera negatiboak sor ditzakeela. Javier García Manglano soziologo eta ikerlariaren arabera, "Argazki batean ikusten da ondoez psikologikoak eta teknologiaren erabilera txarrak elkarrekin dantzatzen dutela, baina ez dakigu zeinek eman zion hasiera dantzari"[2].

García Manglanok "Jóvenes en transición" ("Gazteak aldaketa bidean") proiektua zuzentzen du Nafarroako Unibertsitatean. Proiektu horren barruan sare sozialen erabilera-denbora, testuingurua eta helburua- aztertuko dute 4 urtez 18 eta 22 urte bitarteko 1.200 gazteren kontuen artean, , kontsumo digitalaren eta ondoez pertsonalaren arteko kausa-efektu erlazioa zein den jakitea helburu.

Azterlan horren emaitza onak argitaratzeko asko falta bada ere, dagoeneko aurkitu dituzte **faktore komunak** teknologiaren erabilera desegokian (esaterako, bakardade-sentimendua edo gizarte-trebetasunik eza) eta haren aurreko **babes**-elementuetan (adibidez: gurasoekiko komunikazioa eta haien berotasuna, edo gizarte-trebetasunen entrenatzea).

Schrödinger- o Sandra Ortonobes -La Hiperactina-...) o chicos que construyen sus masculinidades desde el rechazo a sus privilegios patriarcales (Luc Loren, De machos a hombres, Ulises Figueroa...)

## Malestar y uso

Siguiendo con los usos inadecuados de las RRSS, hay indicios de que determinados malestares psíquicos podrían estar detrás de un uso negativo de la tecnología digital. Según el sociólogo e investigador Javier García Manglano "Tenemos una foto en la que se ve que el malestar psicológico y el mal uso de la tecnología bailan juntos... pero no sabemos quién inició el baile"[2].

García Manglano dirige el proyecto "Jóvenes en transición" en la Universidad de Navarra, que analizará el uso de las RRSS (tiempo, contexto y finalidad) de 1.200 cuentas de jóvenes de 18 a 22 años durante 4 años, con el fin de averiguar cuál es la relación causa-efecto entre el consumo digital y el malestar personal.

Aunque falta mucho para que este estudio publique resultados concluyentes, sí se están encontrando **denominadores comunes** en el uso inadecuado de la tecnología -como el sentimiento de soledad o la falta de habilidades sociales- y elementos de **protección** frente a él, como la comunicación y la calidez parental o el entrenamiento de las habilidades sociales.

2. https://www.unav.edu/noticias/-/contents/17/02/2020/2020_02_17_ics_evidencias_internet/content/lovPblW1fC70/25334004 **(gaztelaniaz)**

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

## SAKONTZEKO DINAMIKAK

### 1. DINAMIKA: Sare sozialetan neurriz gaindiko agerpen emozionala eta erotikoaren azterketa (gutxi gorabeherako iraupena: 60 minutu)

Dinamika honen xedea ikastaldeak hausnarketa egitea da, sareetan neurriz gaindi agertzearen ondorioei buruz.

Hasteko, taldea bitan banatuko da. Azpitaldeetako batek bilatuko du sare sozialetan sadfishing delakoa erakusten duen bideo bat batean, eta besteak jarrera erotikoan dantzatzen duen norbaitena.

Ez diegu sexu bateko edo besteko profilak bilatzeko premisa emango, baina eztabaidarako interesgarria izango da agertuko diren genero-estereotipoak aztertzea, kuantitatiboki zein kualitatiboki.

Hona hemen dinamika horren aldaera bat: azpitalde bakoitzak bi motetako bideoak (sadfishinga, batetik; dantza sentsuala, bestetik) sareetara igo dituen norbaiten profila aukeratzea.

## DINÁMICAS PARA PROFUNDIZAR EN EL TEMA

### DINÁMICA 1: Analizando la sobreexposición emocional y erótica en RRSS (duración aprox. 60 minutos)

A través de esta dinámica se pretende que el grupo reflexione sobre las conductas sobreexpositivas en las redes.

Para comenzar la dinámica, el grupo se divide en dos. Uno de los subgrupos buscará un video en alguna red social en donde se exponga el llamado sadfishing, y el otro uno de alguien bailando en actitud erótica.

Aunque no se les dará como premisa que busquen perfiles de uno u otro sexo, será interesante para el debate analizar los posibles estereotipos de género, tanto cuantitativa como cualitativamente.

Una variante de esta dinámica podría ser que cada subgrupo eligiera un perfil de alguien que hubiera subido a redes videos de ambos tipos (uno de sadfishing y otro de baile sensual).

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

Ondoren, honako hauek aztertu beharko lituzke azpitalde bakoitzak:

- Ikustaldi-kopurua eta jarraitzaile kopurua.

- Emozioak neurriz gain erakusten dituen bideoaren kasuan, malkoen arrazoiak.

- Bideoan jasotako iruzkinak aztertzea, positiboak zein negatiboak:
  - •Nola eragin dezakete protagonistarengan?
  - •Antzekoak al dira neskek eta mutilek jasotzen dituzten iruzkinak? Zertan? Zeintzuek adierazten dute enpatia gehien?
  - •Pertsona ospetsuen eta anonimoen bideoak aukeratzen badituzte, jasotzen dituzten iruzkinetan alderik ba ote dagoen aztertu beharko dute.

Behin talde-lana amaitu ondoren, azpitalde bakoitzak aukeratutako bideoak erakutsi eta bere ondorioak azalduko ditu. Halaber, hurrengo gaiei buruz ere eztabaidatuko dute taldean:

- Nork erakusten ditu gehien bere sentimenduak? Neskek ala mutilek? Ba al dago genero-desberdintasunik? Zein izan daitezke desberdintasun horien arrazoiak? Batzuek eta besteek jasotzen duten sozializazio bereizia aztertzea.

- Nork igotzen ditu dantza sentsual gehiago? Neskek ala mutilek? Ba al dago genero-desberdintasunik batzuen eta besteen dantzen artean? Zeintzuk izan daitezke alde horien arrazoiak? Zer bilatzen da dantzak erotizatuz?

Cada grupo tendría que analizar:

- Nº visualizaciones y nº de seguidores y seguidoras.

- En el caso del video de sobreexposición emocional, analizar las razones de sus lágrimas.

- Analizar comentarios que ha recibido el video, tanto positivos, negativos:
  - •¿Cómo pueden influir en su protagonista?
  - •¿Los comentarios que reciben las chicas y los chicos son similares? ¿En qué? ¿Cuáles muestran mayor empatía?
  - •En caso de que elijan videos de personas famosas y de anónimas, analizar si hay diferencias en los comentarios que reciben.

Una vez finalizado el trabajo colectivo, cada subgrupo mostrará los videos elegidos y expondrán sus conclusiones. Se debatirá colectivamente también sobre las siguientes cuestiones:

- ¿Quiénes muestran más sus sentimientos? ¿chicas o chicos? ¿Hay diferencias de género? ¿Cuáles pueden ser las razones de esas diferencias? Analizar la socialización diferenciada que reciben unas y otros.

- ¿Quiénes suben más bailes sensuales? ¿chicas o chicos? ¿Hay diferencias de género entre los bailes de unas y de otros? ¿Cuáles son las posibles razones? ¿Qué se busca con la erotización de los bailes?

# 16. KOMIKIA – ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

## 2. DINAMIKA: Influencerren xerka (gutxi gorabeherako iraupena: 60 minutu)

Dinamika horren bidez, egungo gazteen idoloei eta horiek sustatzen dituzten genero-estereotipoei buruzko hausnarketa eta kontzientzia kritikoa piztu nahi dugu, bai eta irudi alternatibo posibleak erakutsi ere.

3 edo 4 pertsonako talde txikietan banatuta, bakoitzak 3 influencer aukeratuko ditu:

- lehena femeninoa, genero-estereotipo tradizionalei jarraitzen diena.

- bigarrena maskulinoa, hau ere estereotipo tradizionalen jarraitzailea.

- hirugarrena, berriz, genero-estereotipoak hausten dituena, dela irudiagatik, dela profilen edukiagatik.

Behin aukeratuta, taldeak hausnartuko du zer ezaugarri partekatzen dituzten, femeninoek batetik, eta maskulinoek bestetik, eta zer alde hautatu duten hirugarren influencerrarekin.

Honako alderdi hauek azter ditzakete:

- jarraitzaile-kopurua.

- influencer femenino eta maskulinoen arteko aldeak eta antzak sareetan agertzeko moduan (arropa, posea, jarrera eta plantak, dekoratua...).

## DINÁMICA 2: Analizando influencers (duración aprox. 60 minutos)

Con esta dinámica se pretende generar reflexión y conciencia crítica sobre los y las actuales ídolos juveniles y los posibles estereotipos de género que promueven, así como mostrar posibles figuras alternativas.

Divididos en grupos pequeños (3 ó 4 personas), cada uno elegirá 3 influencers:

- una figura femenina que muestre los tradicionales estereotipos de género.

- una figura masculina que también siga estos estereotipos.

- una figura que rompa con los estereotipos de género, ya sea por su imagen o por el contenido de sus perfiles.

Una vez elegidos, el grupo reflexionará sobre las características que comparten ellas, por una parte, y ellos por otra y las diferencias con la tercera figura elegida.

Pueden analizar aspectos como:

- El número de personas que les siguen.

- Las diferencias y semejanzas entre la puesta en escena de ellas y de ellos (ropa, pose, decorado...).

# 16. KOMIKIA – ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

- Mintzagaiak eta genero-estereotipoekin izan dezaketen harremana.

- Jasotzen dituzten iruzkin motak.

Talde-lana amaitu ondoren, bakoitzak bere emaitzak azalduko ditu, eta, aurretik, analisiaren oinarri izan dituen bideoak erakutsiko ditu. Talde guztien lana aurkeztu ondoren, guztien artean eztabaidatuko dute, eta ondorio kritikoak ateratzen saiatuko da:

- Zer estereotipo lotzen dira batzuekin eta besteekin?

- Zer balio sustatzen ditu hirugarren ereduko influencerrak?

- Guztien artean, eragin positiboko influencerren zerrenda egingo dute, direla neska, mutil, zein pertsona ez-bitar.

- Los temas de los que hablan y su posible relación con los estereotipos de género.

- Tipo de comentarios que reciben.

Terminado el trabajo grupal, cada uno expondrá sus resultados, mostrando previamente los videos en los que han basado su análisis. Tras la puesta en común de todos los grupos, se debatirá colectivamente, tratando de sacar conclusiones críticas:

- ¿Qué estereotipos se vinculan a unas y a otros?

- ¿Qué valores promociona la tercera figura?

- Realizar colectivamente un listado de posibles influencers positivos, tanto chicas como chicos como personas no binarias.

ZURE ESKU ERE BADAGO
TAMBIÉN ESTÁ EN TU MANO

# 16. KOMIKIA - ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

## MATERIAL LAGUNGARRIA

### Ikus-entzunezko materiala

A social life:
https://youtu.be/GXdVPLj_plk

Sadfishing, ¿qué es eso? (gaztelaniaz):
https://youtu.be/LmQbk1EtGPM

Sobrexposición en las redes sociales (gaztelaniaz):
https://youtu.be/3eeTsIGUafw

Izan zu zeu, baita digitalean ere:
https://youtu.be/rkjgTk-UANk

### Baliabide didaktikoak

Conectar sin que nos raye gida didaktikoa (gaztelaniaz)

https://donestech.net/files/guia_conectar_sin_que_nos_raye.pdf




## MATERIAL DE APOYO

### Material audiovisual

A social life:
https://youtu.be/GXdVPLj_plk

Sadfishing, ¿qué es eso?:
https://youtu.be/LmQbk1EtGPM

Sobrexposición en las redes sociales:
https://youtu.be/3eeTsIGUafw

Izan zu zeu, baita digitalean ere:
https://youtu.be/rkjgTk-UANk

### Recursos didácticos

Guía Conectar sin que nos raye

https://donestech.net/files/guia_conectar_sin_que_nos_raye.pdf



# 16. KOMIKIA – ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

Egon line. Teknologia berrien arloko hezkuntza lantzeko gida pedagogikoa: erabilera arduratsua, prebentziozkoa eta hezigarria.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/egonline_unitatedidaktikoak/eu_def/adjuntos/egonline_eus.pdf

Egon line. Guía pedagógica para trabajar la educación en las nuevas tecnologías: uso responsable, preventivo y educativo.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/egonline_unitatedidaktikoak/es_def/adjuntos/egonline_cast.pdf






# 16. KOMIKIA – ZER ERAKUTSI, HORI IRAKATSI

# COMIC 16: ¿QUÉ ENSEÑAMOS CUANDO ENSEÑAMOS?

## Beste esteka interesgarri batzuk

¿Qué es el ´sadfishing´ y por qué lo vemos tanto en redes sociales de los famosos? (Gaztelaniaz)

https://www.cosmopolitan.com/es/informacion/a40966255/sadfishing-lagrimas-famosos/




https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/egunak-egin-du/bideoak/osoa/6754337/bideoa-sadfishing-instagramen-jarraitzaileak-irabazteko-negar-egitea/




## Otros enlaces de interés

¿Qué es el ´sadfishing´ y por qué lo vemos tanto en redes sociales de los famosos?

https://www.cosmopolitan.com/es/informacion/a40966255/sadfishing-lagrimas-famosos/




https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/egunak-egin-du/bideoak/osoa/6754337/bideoa-sadfishing-instagramen-jarraitzaileak-irabazteko-negar-egitea/

